



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

# **BERANGOkO udalerriko etxeko eta merkataritzako hondakinei buruzko udal ordenantza**



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

**AURKIBIDEA**

**1. Titulua. Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Aplikazio-eremua
3. artikulua. Definizioak
4. artikulua. Etxeko eta merkataritzako hondakinen definiziotik kanpo utzitako hondakinak.
5. artikulua. Zerbitzuak ematea
6. artikulua. Kudeaketa-hierarkia
7. artikulua. Erregimen fiskala
8. artikulua. Erretzea, sua eta erraustea debekatzea

**2. Titulua. Hondakin-bilketa**

1. Kapituluak. Arau orokorrak
  9. artikulua. Bilketa-sistema
  10. artikulua. Bilketarako baimendutako eragileak
  11. artikulua. Hondakinen jabetza
  12. artikulua. Biltzeko betebeharrak
  13. artikulua. Bilketaren maiztasuna eta ordutegiak
2. Kapituluak. Bilketa espaloiko edukiontzien bidez ....
  14. artikulua. Bildutako hondakin-motak
  15. artikulua. Hondakinak uztea
  16. artikulua. Udal-mugarterako bilketa puntuak
  17. artikulua. Edukiontziak kontserbatzea
  18. artikulua. Biohondakinen edukiontziak

**3. Titulua. Autokonpostajea egiteko arauak**

19. artikulua. Hondakin autokonpostagarriak
20. artikulua. Autokonpostajea egiteko ontziak



**BERANGOKO UDALA**  
**BIZKAIA**

4. Titulua - Beste hondakin batzuk biltzeko arauak

- 21. artikulua. Animalia hilak
- 22. artikulua. Tamaina handiko hondakinak
- 23. artikulua. Utzitako ibilgailuak
- 24. artikulua. Inausketak eta antzekoak
- 25. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuak
- 26. artikulua. Sukaldeko olioak
- 27. artikulua. Pilak
- 28. artikulua. Ehun-gaiak, arropa eta oinetakoak (edo berrerabilgarriak)

5. Titulua. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak

1. Kapitulumua. Arau orokorrak

- 29. artikulua. Sailkapena
- 30. artikulua. Biltegitratzeko arau orokorrak
- 31. artikulua. Obra-edukiontzia bide publikoan
- 32. artikulua. Garraioa
- 33. artikulua. Garbiketa

2. Kapitulumua. Obra handien ondoriozko hondakinak

- 34. artikulua. Aplikatu beharreko araudia
- 35. artikulua. Aurretiko dokumentuak
- 36. artikulua. Hondakinak bereizteko eremurik eza
- 37. artikulua. Finantza bermea
- 38. artikulua. Lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa-txostena
- 39. artikulua. Urbanizazio-proiektuen amaierako kudeaketa-txostena
- 40. artikulua. Bermea itzultzeko eskaera
- 41. artikulua. Bermea itzultzeko proposamena
- 42. artikulua. Errekerimendua
- 43. artikulua. Bermea exekutatzeko proposamena
- 44. artikulua. Ebazpena



**BERANGOKO UDALA**  
**BIZKAIA**

- 45. artikulua. Jarduketa, hondakinak aurkitzen diren kasuetan
  - 46. artikulua. Jarduketa, hondakinak aurkitzen ez diren kasuetan
  - 47. artikulua. Lehen erabilerarako lizentzia
  - 3. Kapitulua. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak
    - 48. artikulua. Hondakinen xedea
    - 49. artikulua. Hondakinak bereiztea
  - 4. Kapitulua. Udal obrak
    - 50. artikulua. Agregakin birziklatuak erabiltzea
    - 51. artikulua. Hondakinen kudeaketa udal-obretan
  - 6. Titulua - Ikuskapena, kontrola eta zehapenak
    - 1. Kapitulua. Ikuskapena eta kontrola
      - 52. artikulua. Ikuskatze-zerbitzua
      - 53. artikulua. Ikuskatze-zerbitzuen izaera
      - 54. artikulua. Lankidetzarako betebeharra
      - 55. artikulua. Laguntza teknikoak
    - 2. Kapitulua. Arau-haustek eta zehapenak
      - 56. artikulua. Erantzuleak
      - 57. artikulua. Arau-haste eta zehapenen preskripzioa
      - 58. artikulua. Jatorriko egoerara itzularazteko betebeharra
      - 59. artikulua. Zehapen-prozedura
      - 60. artikulua. Administrazioaren arau-haustek
      - 61. artikulua. Arau-hauste arinak
      - 62. artikulua. Arau-hauste larriak
      - 63. artikulua. Arau-hauste oso larriak
      - 64. artikulua. Zehapenak
      - 65. artikulua. Zehapen mailak ezartzeko irizpideak
      - 66. artikulua. Behin-behineko neurriak
- Azken xedapen bakarra



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

**1. titulua. Xedapen orokorrak**

**1. artikulua. Xedea**

Ordenantza honen xedea Berangoko udal-mugartean etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa arautzea da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, eta 22/2011 Legearen, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren, arabera Udalari esleitutako eskumenen esparruan.

**2. artikulua. Aplikazio-eremua**

Ordenantza honen preskripzioak Berangoko udal-mugarte osoan aplikagarriak izango dira, eta bertan bizi edo egoitza duten pertsona fisiko nahiz juridiko orok bete beharko dituzte, bai eta bisitariek eta iragaitzazko bidariek ere, euren dagozkien alderdietan.

**3. artikulua. Definizioak**

a) Etxeko hondakinak. Etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortzen direnak dira. Etxeko hondakintzat hartzen dira halaber zerbitzu eta industrietan sortutakoak, aurrekoen berdintsuak baldin badira.

Kategoria horretan sartzen dira orobat etxeetan sortutako gailu elektriko eta elektroniko, arropa, pila,metagailu, altzari eta tresnen hondakinak, bai eta etxeko eraikuntza eta konponketako obra txikien ondoriozko hondakinak eta zaborrak ere.

Horrez gain, etxeko hondakintzat hartuko dira jatorria bide publiko, gunee berde, jolas-eremu eta hondartzen garbiketan duten hondakinak, etxe-abere hilak eta utzitako ibilgailuak.

b) Merkataritzako hondakinak. Handizkako zein txikizkako merkataritza-jarduerak sortutakoak dira, bai eta jatetxe eta tabernetako zerbitzuetako, bulego eta azoketako eta gainerako zerbitzuen sektoreko jarduerak eragindakoak ere.

c) Gaikako bilketa. Hondakinak bereiz jasotzea da, haien mota eta izaeraren arabera, tratamendu espezifikoak errazte aldera.

d) 5. Edukiontzia. Landareetatik eratorritako hondakin biodegradagarriak biltzeko edukiontzia (BFAaren Bizkaiko Konpostegiaren araudian oinarritutako definizioa). Honako hauek sartzen dira:



**BERANGOKO UDALA**  
**BIZKAIA**

-Lorezaintzako hondarrak: Inausketako hondarrak, zuhaixkak, hostoak, koniferoak, landareak (sustrairik gabe), soropila...

— Ekoizle handiko biohondakina: Ekoizle handietako fruta eta barazkiak (Mercabilbao, hornigaien merkatuak eta merkataritza azalera handiak).

— Etxeko biohondakina: Kozinatu gabeko landare jatorriko hondarrak (barazkiak, frutak, haziak, fruitu lehorrak, zerealak, landare hondarrak), ogia, opilak, sukaldeko papera, komuneko papera, ezpainsapiak, infusio poltsatxoak, kafe hondarrak, botiletako kortxoak...

e) Papera-kartoiak. Kategoria honetan sartzen dira egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, kartoiak, orri idatziak, papera eta kartoizko ontziak, kartoizko arrautza-ontziak, paperezko poltsak, kartoizko kaxak, ohar-liburuxkak eta koadernoak, karpetak eta antzeko hondakinak. Ez dira sartzen zelofana, aluminio papera, tetrabrikak, argazkiak, erradiografiak, tisu papera eta haur-oihalak.

f) Beira. Hauek dira, bestak beste: ur-, ardo-, likore-, garagardo- eta freskagarri botilak, kontserba- eta jogurt-potoak, lurrin-flaskoak, beste kosmetika-produktu batzuk edukitzeak eta antzekoak. Kategoria honetatik kanpo geratzen dira bonbillak, leiho, ispilu eta betaurrekoetako kristalak, loreontziak, edalontziak, loza, ibilgailuetako kristalak, portzelana- eta zeramika-lanak eta antzekoak.

g) Ontzi arinak. Puntu berdea duten ontzi guztiak, plastiko zein metalezkoak, tetrabrikak, plastikozko poltsak, metal zein plastikozko tapoiak eta txapak, zurezko kaxak, aerosol-poto hutsak (desodoranteak, lakak eta abar). Ez dira sartzen ez paperezko zein kartoizko ontziak ez beirazkoak. Horiek beren bilketa bereizia dute.

h) Tamaina handikoak. Beren tamaina dela eta, ohiko bilketa-bitartekoen bidez eraman ezin daitezkeen hondakinak dira, hala nola etxetresna elektrikoak, altzariak, metalezko xaflak eta zurak.

i) Sukaldeko olioak. Frijitzeko olioak eta kontserba-potoetako olioak. Motorrentzako olioak kanpo geratzen dira.

j) Berrerabiltzeko edukiontzia: Arropak, ehun-gaiak, oinetakoak, eta etxeko gauzakiak. Bertan sartzen dira etxeko edozein eratako ehun-gaiak, edozein eratako oinetakoak, arropak, poltsak, osagarriak, jostailuak, liburuak, etxeko elektrizitate-tresna txikiak, Bideoak, argazki kamerak, DVD-gailuak, musika gailuak, sakelako telefonoak, sakelako telefonoak edo argazki kamerak kargatzeko gailuak eta etxeko beste gauzaki batzuk: Lapikoak, lanparatxoak, mahai-tresnak...



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

- k) Higiene-gaien hondakinak. Katēgoria honetan haur-oihalak, konpresak eta higiene-gaien bestelako hondakinak sartzen dira.
- l) Pilak. Botoi-pilak, pila zilindrikoak eta pila zapalak, besteak beste.
- m) Botikak eta botika-ontziak. Botika-zorroak, pilulak, kapsulak, anpoilak, supositorioak eta botiken bestelako formak, bai eta horiek biltzen dituzten ontziak ere (plastikozko poteak, kartoi edo plastikozko kaxak, blisterrak, eta abar).
- n) Etxeko hondakin arriskutsuak. Etxean sortzen diren eta arriskugarritasuna ezaugarri duten hondakinak dira.
- o) lanpara fluoreszente hutsak, lanpara fluoreszente trinkoak, Intentsitate handiko bonbillak, presio gutxiko, sodioko bonbillak, Retrofit LEDak.
- p) Inprimagailuetako tonerrak eta kartutxoak.
- q) CD eta DVDak
- r) Etxeko eraikuntza- eta konponketa-lanen hondakinak. Obra txikietan sortutako zaborrak dira: adreiluak, hormigoia, lauza eta azulejuak, zura, plastikoa, igeltsu ijeztuko plakak, eta abar.
- s) Gainerakoa. Gaika biltzen ez diren hondakinak dira.
- t) Hondakinak kudeatzeko pertsona edo erakundea: hondakinak kudeatzeko eragiketak egiten dituen pertsona edo erakundea, publikoa nahiz pribatua, eta baimen edo komunikazio bidez erregistratua, hondakin horien ekoizlea izan ala ez.
- u) Hondakinen kudeaketa: hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea.
- v) Bilketa: hondakinak jasotzea da. Alegia, hasierako sailkapena eta biltegiratzea egitea, gero tratamendu-instalazioetara garraiatzeko.
- w) Tratamendua: balorizazio- edo deuseztapen-eragiketak dira, horien aurreko prestaketa barne.
- x) Balorizazioa: hondakin batek helburu baliagarri bat izateko (nagusiki) egiten den eragiketa oro, bestela funtzio jakin bat betetzeko erabiliko liratekeen materialen ordezen moduan; edota hondakina funtzio hori instalazioan bertan zein oro har ekonomian betetzeko prestatzea. Uztailaren



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

28ko 22/2011 Legearen, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren, II. eranskinak balorizazio-jardueren zerrenda ez mugatua jasotzen du.

y) Deuseztapena: balorizazioa ez den beste edozein eragiketa da, nahiz eta bigarren mailako ondorio gisa, substantziak edo energia aprobetxatu. Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren, I. eranskinak deuseztatze-jardueren zerrenda ez-mugatua jasotzen du.

z) TEEH: Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak

aa) Garbiguneak etxeko hondakinak eta antzekoak gaika batzeko zentroak dira. Euren kokagunea oso estrategikoa da, erabiltzaileengandik hur ipini dira. Era berean, herritarrentzako DOAKO zerbitzua ere bada, eta birziklatu, berrerabili eta balioztatu egin litezkeen materialak uzteko bertan.

bb) Obra handiak: Obra handizat hartuko dira indarrean dauden legeei jarraikiz proiektu teknikoa egitea eta onartzea eskatzen duten guztiak. (Udal bakoitzak erabakiko du zer-nolako obrak sartuko diren hor).

cc) Obra txikiak: Indarrean dauden legeei jarraikiz, beren eraikuntza-sinpletasuna eta kostu txikiaren ondorioz proiektu teknikoa egitea eta onartzea eskatzen ez dutenak dira.

#### **4. artikulua. Etxeko eta merkataritzako hondakinen definiziotik kanpo utzitako hondakinak**

Hondakin hauek etxeko eta merkataritzako hondakinen definiziotik kanpo geratzen dira:

a) Industria-jarduerako fabrikazio-, eraldatze-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo mantentze prozesuetan sortzen diren hondakinak.

b) Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak, indusketa-lurrak barne, etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondoriozkoak ez direnean.

c) Giza kontsumokoak ez diren animalien azpiproduktuak, harategi, arrandegi eta antzeko saltokietan sortzen direnak eta, udalaren salbuespenezko baimena eduki ezean, etxeko hondakinekin batera kudeatu ezin direnak; kasu horretan, jardueren titularrek enpresa baimendu batekin kontratatatu beharko dute hondakin horien bilketa.

Aurreko paragrafoan adierazitako salbuespenezko baimena lortzeko, saltokiaren titularrak hauetako egoera batean dagoela frogatu beharko du:





**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

- Animalien azpiproduktuak biltzen edo kudeatzen dituen pertsona edo erakunde batek gutxienez uko egin diola horiek biltzeari (enpresa hori, hala ere, azpiproduktua -arraina zein haragia- jasotzeko baimenduta egon beharko da).
- Azpiproduktuen gaineko baimena duen enpresa batek kudeaketa egin ezin izatea, arrazoi ekonomikoak direla medio; kasu guztietan, eskaintza ekonomikoa edo aurrekontua aurkeztu beharko da.
- Ez du eragozpenik edo kalterik sortzen ingurumenean, ingurunean edo pertsonengan.

**5. artikulua. Zerbitzuak ematea**

1. Udalak, etxeko eta merkataritzako hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko, zerbitzu publikoak kudeatzeko indarrean dauden legeetan ezarritako edozein modu erabiliko du, ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betez eta bere interesak aintzat hartuta, une bakoitzean egokientzat jotzen dituen sistema tekniko eta antolakuntzakoekin bat jardunez.
2. Zerbitzu jakin batzuk emateko eskumena baimendutako kudeaketa-sistema integratuei lagatzeko aukera izango du, horretarako behar diren hitzarmenak sinatuta.

**6. artikulua. Kudeaketa-hierarkia**

1. Udalak hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren antolaketa eta garapena bideratuko du, lehentasun-ordena honen arabera:
  - a) Prebentzioa.
  - b) Berrerabiltzeko prestatzea.
  - c) Birziklatzea.
  - d) Beste balorizazio-mota bat, balorizazio energetikoa barne.
  - e) Deuseztatzea.
2. Hala ere, zenbait hondakin-fluxutan ingurumen-eragintza globalik onena lortzeko, hierarkia hori alde batera utzi behar baldin bada, beste lehentasun-ordena bat ezarri ahal izango da, halaxe gomendatzen badu hondakinaren sorrera eta kudeaketaren eraginen inguruko bizi-zikloaren ikuspegiak.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

**7. artikulua. Erregimen fiskala**

1. Urtero-urtero, legearen arabera tasak ezarri behar zaizkien zerbitzuak emateagatiko tasak xedatuko ditu udalak ordenantza fiskalean, herritarrek/erabiltzaileek ordaindu beharko dituztenak.

**8. artikulua. Erretzea, sua eta erraustea debekatzea**

1. Debekatuta dago eremu publiko eta pribatuetan hondakinak erretzea.

2. Udalaren baimena beharko da ekitaldi kulturaletan sua egiteko. Kasu horretan, udalak ezarritako arauei jarraikiz egingo dira erretzeak. Ezingo da inola ere surik egin udal-mugarteko Naturagune Babestuetan.

3. Nekazaritza-ustiapenetan erabilitako uztondoak, inausketa-hondakinak, lastoa eta bestelako material naturalak, nekazaritzakoak nahiz basokoak (arriskutsuak ez direnak) erretzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzuko Base Gorriari, jakinarazi beharko zaio, erreko diren materialen izaera kontrola dezan. Horrez gain, mendiei buruzko legeek edo bestelakoek eska ditzaketen gainerako baimenak ere eduki beharko dira.

**2. titulua. Hondakin-bilketa**

**1. kapitulua. Arau orokorrak**

**9. artikulua. Bilketa-sistema**

1. Berangoko Udalak (Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearekin batera) aurrera eramango duen bilketa-sistema hauxe izango da:

a) Ondoren zehazten diren hondakinak lurrazalean, espaloian jarritako edukiontzietan jaso egingo dira:

- Gainerako hondakinak, edukiontzi berdean.

- Hondakin-organikoak, begetalak, 5. edukiontzian, edukiontzi marroian.

- Papera-kartoia, edukiontzi urdinean

- Beira, edukiontzi berdean



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

- Ontzi arinak, edukiontzi horian
- Sukaldeko olioak, edukiontzi laranja.
- Berrabiltzeko edukiontzia, edukiontzi zuria.
- Pilak, pilontzian.

b) Eraikin publikoetan eta lankidetzan ari diren establezimenduetan jarritako berariazko edukiontzietan edo ontzietan batuko dira ondoren zehazten diren hondakinak:

- Pilak ( herri erakundeen eraikinetan eta lankidetzan ari diren saltokiak).
- Tonerrak eta kartutxoak, Cdak eta DVDak.
- Lanpara fluoreszenteak, kontsumo gutxiko bonbillak, bonbillak, retrofit LEDak.

c) Bada garbigune bat, osagarria. Bertara eroan ahal dira hondakinak. Helbidea hauxe da: Aita Gotzon, z/g, 48600 Sopela. Link honetan [http://garbiker.bizkaia.net/Eus/eu\\_Pag\\_333.htm](http://garbiker.bizkaia.net/Eus/eu_Pag_333.htm) eskura dago Garbiguneetako langileak eta erabiltzaileak jarduteko araudia.

d) Bolumen handikoak. Etxeko bolumen handiko hondakinak, altzariak, etxeko gauzak, etab. astelehenetik igandera jasoko dira, urteko egun guztietan, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik. Bolumen handikoak, gainerako hondakinen edukiontzien alboan utzi beharko dira, trabarik sortu gabe eta edukiontzi horiek jasotzeko lanak oztopatu gabe. Bolumen handikoak egunaren azken orduetan uztea gomendatzen da, biharamuneko lehen orduan jaso ahal izateko, eta egunaren gainerako orduetan bertan gera ez daitezten. (Irakurri 22. artikulua)

2. Lortutako emaitza tekniko eta ekonomikoen arabera, udalak edo, hala badagokio, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak sistema aldatu ahal izango du.

3. Sistema horiekin batera, hondakinak sortzeagatik tasa bat ordaindu beharra ezarri ahalko da.

Horren bidez, erabiltzaile bakoitzak zerbitzuaren kostuak ordainduko lituzke, sortzen duen hondakin kantitatearen arabera.



#### 10. artikulua. Bilketa egiteko baimendutako eragileak

1. Udalak edo/eta Mankomunitateak baimendutako zerbitzuek baizik ezingo dute etxeko hondakinen bilketa egin, Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduaren Talde Sistemaren babesean (lehen, Kudeaketa Sistema Integratua) dauden hondakinen bilketaren kasuan izan ezik. Ondorioz, debekatuta dago beste pertsonak, fisiko nahiz juridiko, hondakinak biltzeko eragiketarako egitea.

2. Merkataritzako hondakin ez-arriskutsuen eta bizitegi hiri-lurzoruko industrietan sortutako etxeko hondakinen kudeaketa, ordenantza honetan, edo etorkizunean berau ordeztuko duen araudian, xedatutakoaren arabera ezarritako sistema publikoaren mende egongo da. Hondakinok ekoizten dituzten edo hasieran horien jabe diren enpresek ezin izango dute hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen, uztailaren 28koaren, 17. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako aukera gauzatu.

3. Arriskutsuak ez diren saltokietako hondakinak eta bizitegiz besterako hiri-lurzoruko industrietan eta enpresetan sortutako etxeko hondakinak, hondakinak kudeatzen edo batzen dituzten enpresen bidez egin ahal izango da.

#### 11. artikulua. Hondakinen jabetza

1. Hondakinak, kasuan kasuko zerbitzuek jasotzeko helburuarekin adierazitako lekuetan utzi ostean, udal-jabetzako bihurtuko dira.

2. Bilketari dagokionez, aurreko atalak aipatzen duen hondakinen gaineko udal-jabetza materialok bide publikoko edukiontzietan uzten diren unetik izango da eraginkorra, edota bilketa publikoa egiteaz arduratzen diren langileei entregatzen zaizkien unetik.

#### 12. artikulua. Biltzeko beharra

1. Udalak bilduko ditu etxeetan eta zerbitzu-saltokietan sortutako etxeko hondakinak (establezimendu horietan sortutako hondakinak etxeetakoekin parekagarriak badira eta ordenantzan ezarritakoa betetzen badute).

2. Hala ere, etxeko hondakin arriskutsuen edo beren ezaugarriak direla-eta kudeatzen zailak diren hondakinen jabe diren edo horiek ekoizten dituzten pertsonak zein erakundeak neurriak hartzera



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

behartu ahalko ditu, ezaugarriok ezabatu nahiz murrizteko edota hondakinok modu eta leku egokian uzteko.

**13. artikulua. Bilketaren maiztasuna eta ordutegiak**

1. Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, udalerriko interesak aintzat hartuta, egokitzen jotzen dituen bilketaren maiztasuna eta ordutegiak ezarri eta argitaratuko ditu udaleko webgunean.

2. Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, interes publikoko arrazoiak direla medio, egokitzen jotzen dituen aldaketak txertatu ahalko ditu; kasu horretan, behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko ditu zerbitzua emateko ordutegi nahiz maiztasunean egiten dituen aldaketak.

**2. kapitulua. Bilketa espaloiko edukiontzien bidez**

**14. artikulua. Bildutako hondakin-motak**

1. Udalak edukiontziak jarriko ditu espaloietan, hondakin-mota hauek jasotze aldera. Sistemaren eraginkortasun-arrazoiak direla eta, zerrenda hori zabaldu edo murriztu ahalko da:

- a) Biohondakinak. Edukiontzi marroia
- b) Gainerakoa. Edukiontzi orlegia
- c) Papera-kartoa. Edukiontzi urdina
- d) Ontzi arinak. Edukiontzi horia
- e) Beira. Iglu erako edukiontzi berdea
- f) Olioak. Edukiontzi laranja
- g) Pilak.
- h) Hondakin berrerabilgarriak, TEEHak, ehun-gaiak, eta abar.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

2. Udalak eta Mankomunitateak berak zehaztuko ditu edukiontzi-motak, eremu bakoitzean jarri beharreko unitateen kopurua eta beren kokapena. Horretarako, irizpide teknikoei jarraituz egingo da, hala nola, edukiontzi-multzoetan elkartzea; saihestu egingo da lurpeko edukiontziak ipintzea, eta kokatzea ikuspen gutxiko guneetan edo gune arriskutsuetan, etab.

3. Erabiltzaile batek uste badu edukiontziak bere etxebizitza edo saltokitik gertuago izan beharko lituzkeela, udalari eskaera egin ahalko dio; horrek, kasuaren ezaugarriak eta zerbitzuaren aukerak aztertu ostean, egoki irizten dion erabakia hartuko du.

**15. artikulua. Hondakinak uztea**

1. Erabiltzaileek edukiontzietan utzi beharko dituzte hondakinak, udalak xedatutako tokietan.

2. Birziklatzeari dagokionean, gomendatzen da hondakinak jatorrian bereiztea, ondoren dagozkien edukiontzietan uzteko, eta debekatuta dago hondakinak dagozkien edukiontzietan ez beste batzuetan sartzea.

3. Erabiltzaileek isuririk ez gertatzeko moduan utzi beharko dituzte hondakinak. Hondakinak behar bezala ez sartu eta isuria gertatzen bada, eragin duenak hartuko du sortutako zikinaren gaineko erantzukizuna.

4. Hondakinak ezin izango dira inola ere pakete, kaxa edo antzekoetan laga.

5. Debekatuta dago hondakinak zakarrontzietan uztea. Era berean, ezin izango dira bide publikoan instalatutako edukiontzietan utzi, hondakinon tamaina dela eta, edukiontzion ahoa oztopatzen bada.

6. Debekatuta dago edukiontzietan hondakin likidoak edo likidotu daitezkeen hondakinak sartzea.

**16. artikulua. Udal-mugarteko bilketa-puntuak**

1. Bilketa-zerbitzuek hondakinak jasotzeko, udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak zehaztutako lekuetan utziko dituzte erabiltzaileek. Debekatuta dago hondakinak edukiontzietatik kanpo uztea.

2. Udalak, aldi baterako nahiz betiko, hondakinak uzteko eta metatzeko ohiko puntuak ez beste batzuk ezarri ahalko ditu.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

3. Eraikin publikoetan eta lankidetzan ari diren establezimenduetan jarritako berariazko edukiontzietan edo ontzietan batuko dira ondoren zehazten diren hondakinak.

a) Pilak ( eraikin publikoetan eta lankidetzan ari diren saltokiak).

b) Tonerrak eta kartutxoak,

c) Cdak eta DVDak.

d) Lanpara fluoreszenteak, kontsumo gutxiko bonbillak, bonbillak, retrofit LEDak.

4. Bada garbigune bat, osagarria. Bertara eroan ahal dira hondakinak. Helbidea hauxe da: Aita Gotzon, z/g, 48600 Sopela. Link honetan [http://garbiker.bizkaia.net/Eus/eu\\_Pag\\_333.htm](http://garbiker.bizkaia.net/Eus/eu_Pag_333.htm) eskura dago Garbiguneetako langileak eta erabiltzaileak jarduteko araudia.

5. Bide publikoan obrak egiteagatik, beharrezko suertatzen bada edukiontziak kentzea, aipatutako obraren sustatzailea izango da horren arduraduna, udalari eskatu beharko dio edukiontziak mugitzeko baimena, eta ondoren, horiek berriro ipini beharko ditu, behar bezala.

**17. artikulua. Edukiontziak onik kontserbatzea**

1. Udalak hiri-eremuan erreserba bereziak ezarriko ditu, zamalanak eta edukiontziak behar bezala kontserbatzeko egin beharrezko gainerako eragiketak egiteko.

2. Kasuan kasuko zerbitzuek aldika garbitu beharko dituzte edukiontziak, haien kontserbazio-egoeraren arabera, eta higiene-kondizio egokiak atxikitze aldera. Konpostajera bideratuko diren hondakinen edukiontziak garbitzeko, lortu nahi den produktuaren kalitatea arriskuan jarriko ez duten produktuak erabiliko dira

3. Erabiltzaileek, eta oro har herritarrek, edukiontziak higiene- eta segurtasuneko egoera egokian atxiki beharko dituzte, eta beren gain hartuko dituzte beren erru, zabarkeria edo arduragabekeria dela eta ontziok jasan lezaketen narriadura. Betebehar horixe bera ezartzen da babes-barra, gontz, barrote eta abarren kasuan, bai eta bilketa-eremuak mugatzeko marken kasuan ere, halakorik egonez gero.

4. Debekatuta dago edukiontziak beren lekutik mugitzea, bai eta manipulatzeko ere, horren ondorioz egoera arriskutsuak gertatu badaitezke edo zerbitzuko langileen bilketa oztopatzen bada.



### **18. artikulua. Biohondakinen edukiontziak**

1. Udalak biohondakinak biltzeko edukiontzi espezifikoak ezarriko ditu udalerrri osoan edo zati batean.
2. Edukiontzien irekitze-sistema bat edukiko dute, ondo informatuta dauden boluntarioek baizik ezingo dituztelarik horiek ireki, ezinbestekoa baita edukiontzietan hondakin organikoak besterik sartzen ez direla bermatzea.
3. Biohondakinen edukiontzietan landare-jatorriko hondakinak laga ahalko dira: lekaleak, frutak, barazkiak eta pasta, bai eta landareen hondakinak eta fruten hezurak ere. Papera eta paperezko zapi zikinak ere onartzen dira. Hala ere, haragi, arrain eta itsaskien hondakinak, arrautza-oskolak, gazta, animalien janaria, lurra, haur-oihalak eta zigarro-puntak ezin izango dira edukiontzi horretara bota.
4. Debeztatuta dago edukiontzietan harategi, arrandegi eta bestelako merkataritza-saltokietatik datozen haragi eta arraien hondakinak uztea.
5. Adierazitako saltokietako titularrek azpiproduktuok bildu edo kudeatzeko enpresa baimenduen zerbitzuak kontratatu beharko dituzte, eta gutxienez urtebetez gorde beharko dute entrega horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa.
6. Animalien azpiproduktuak behar bezala kudeatzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa urtero bidali beharko zaio udalari, martxoaren 31 baino lehen.

### **3. titulua. Autokonpostajea egiteko arauak**

#### **19. artikulua. Autokonpostajea egiteko moduko hondakinak**

Etxeetan, ortu, eta jabetzapeko lurretan egindako auto-kospontajea norbere aukerakoa da. Erabiltzaile bakoitzak erabaki ahal izango du ze hondakin erabili autokonpostajea egiteko. Honako biohondakin hauekin egin ahalko da autokonpostajea:

- Fruta, berdura eta barazkien hondakinak.
- Janari eta ogiaren hondakinak.
- Itsaski eta arrautzen oskolak eta fruitu lehorrak.





**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

- Sukaldeko paper erabilia, janarien hondakinekin baina produktu kimikorik eta detergenterik gabe.
- Kafearen hondarrak eta infusioen hondarrak.
- Hosto lehorrak, lorategiko landareen hondarrak eta inausketa-hondakin txikituak.
- Landu gabeko zur-zerrautsak eta -txirbilak.
- Lastoa eta soropila.

**20. artikulua. Autokonpostajea egiteko ontziak**

1. Erabiltzaileek autokonpostajea egiteko ekipamenduak eskuratu ahalko dituzte, beren hondakinak tratatzeko.

**4. titulua. Beste hondakin batzuk biltzeko arauak**

**21. artikulua. Animalia hilak**

1. Pertsona batek animalia hil bat aurkitzen badu, udalari jakinarazi beharko dio, gorpua behar bezain higienikoki ken dezan.
2. Debekatuta dago animalien gorpuk etxeko zaborretan eta edozein lurretan uztea, bai eta isurbide, ibai, urmael, estolda-zulo eta estolderia-sarera botatzea eta jabetza publikoko lurretan ehorztea ere.
3. Arau hori ez betetzeagatik zehapenak osasunaren alorreko araudian aurreikusitako erantzukizunetik erabat independenteak izango dira.

**22. artikulua. Tamaina handiko hondakinak**

1. Debekatuta dago hondakin horiek edukiontzietan uztea, bai eta hondakinok bide publikoan edo orube nahiz lur publiko zein pribatuetan uztea ere.
2. Erabiltzaileak tresna elektriko edo elektroniko berri bat, zaharraren baliokidea edo funtzio berberak dituen, erosten duenean banaketa-kateari tresna zaharra itzuli ahal izango dio. Horrek, berriz, behin-behinean gorde egin behako du, betiere, funtsezko osagaiak baldin baditu eta tresnarenak ez diren beste hondakin batzuk ez baditu.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

3. Tamaina handiko hondakinak (altzariak, koltxoiak, etxetresna elektrikoak, somierrak, lanparak eta antzekoak) alde batera utzi nahi dituztenek, Bolumen handiko hondakinok utzi ahal izango dira gainerako hondakinentzako edukiontzien ondoan, urteko egun guztietan, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik.
4. Inola ere, hondakinek ezingo dute oinezkoen zirkulazioa eragotzi edo galtzada hartu.
5. Tamaina handiko hondakinen kasuan, erabiltzaileek Garbigunera ere eraman ahal dituzte.
6. Beren merkataritza-jardueraren eraginez hirugarren sektoreko saltokiek tamaina handiko hondakinak sortzen badituzte, eurei egokituko zaie horiek kudeatzea.

**23. artikulua. Utzitako ibilgailuak**

1. Debekatuta dago erabiltzen ez diren ibilgailuak bide publikoan edo erabilera orokorreko eremuetan uztea, gune horiek kontserbatzea eta zaintzea udalari dagokionean.
2. Ibilgailu bat utzitzat joko da hilabete baino gehiago baldin badarama toki berean aparkatuta eta, hondatuta dagoela eta, ez badago bere kasa inora joateko moduan, edo matrikula-plakak faltan baldin baditu.
3. Ez dira erabiltzen ez diren ibilgailu gisa hartuko, egoera horretan mantentzeko agindu judiziala aplikagarria zaien ibilgailuak, udalak horren berri baldin badu. Udalak hiri-higienea mantentzeko beharrezko neurriak hartu ahalko ditu.
4. Utzitako ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren egoera jakinaraziko zaie jabeai, eta berau kentzeko gehienez ere 15 egun naturaleko epea emango, salbu eta arriskugarritasun, osasungarritasun edo ordena publikoko baldintzak tartean, hura berehala kendu behar bada.
5. Ibilgailua kendu eta gorde ostean, haren titularrari edo jabeari jakinaraziko dio udalak.
6. Jakinarazpenean, titularrari eskatuko zaio ibilgailua udalaren esku uzten duen (udal jabetzakoa izatera igaroko da) edota hura deuseztatzeko ardura berak hartzen duen zehazteko, eta 15 eguneko epean erantzunik eman ezean, lehenengoa aukeratu duela ulertuko dela ohartaraziko zaio. Jabea nor den jakin ezean, arau orokorrean jarraikiz egingo da jakinarazpena.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

7. Ibilgailua gehienez ere bi hilabetez gordeko da. Epe hori igarota, egoki irizten dion erabilera emango dio udalak; horrela jardungo du arriskugarritasun, osasungarritasun eta ordena publikoko baldintzak direla-eta kendutako ibilgailuen kasuan.

8. Kasuan kasuko zehapenak gorabehera, ibilgailuen jabe eta titularrek beren gain hartuko dituzte haiek kentzeak eta gordetzeak eragiten dituen gastuak, bai eta udalak gauzatutako beste edozein eragiketaren ondoriozkoak ere.

**24. artikulua. Inausketak eta antzekoak**

1. Lorategi-eremuetako jabeek eta arduradunek lorezaintza-hondakinak beren baliabideak erabilia bildu eta kudeatu behar dituzte, eta horiek konpostatu edota Garbigunera edo hondakinok tratatzeko lantegietara eraman behar dituzte.

**25. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuak**

1. Etxeetan sortutako etxeko hondakin arriskutsuak hemen entregatu beharko dira:

a) Garbigunean, beren araudiarekin bat etorriz.

**26. artikulua. Sukaldeko olioak**

1. Debehatuta dago sukaldeko olioak uraren saneamendu-sarearen bidez isurtzea, bai eta beste hondakin batzuk biltzeko jarritako edukiontzietan uztea ere.

2. Etxeetan, saltokietan, ostalaritza eta beste establezimenduetan sortutako sukaldeko hondar-olioak plastikozko ontzitan gorde beharko da. Erabiltzaileek, ontziok tapoi hariztatuz ondo itxi, eta horretarako jarritako edukiontzietan utzi beharko dituzte.

3. Edukiontzietan sukaldeko olioak baizik ezingo da sartu.

4. Era berean, erabiltzaileek Garbigunera eraman ahalko dute olio hori.

5. Zerbitzu eta industrietako sukaldeko olioak kudeatzeko, horietako titularrek (pertsona zein erakunde) bilketa-zerbitzu pribatuak kontratatu eta entrega-agiriak urtebetez gorde beharko dituzte.

**27. artikulua. Pilak**



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

1. Erabiltzaileek toki hauetan utzi beharko dituzte pila erabiliak:

- a) Besteak beste bide publiko, banatze-puntu, merkataritza-zentro, zentro publiko eta auzo-etxeetan jarriko diren edukiontzietan, behar bezala seinaleztatuta egongo direnak.
- b) Garbigunean.

2. Pilak ezingo dira inola ere poltsetan ez beste hondakin batzuetarako edukiontzietan sartu.

**28. artikulua. Ehun-gaiak, arropa eta oinetakoak (edota berrerabilgarriak)**

1. Udalak ehun-gaiak, oinetakoak eta osagarriak biltzeko edukiontzia jarriko ditu, gero berrerabiltzeko. Horietan, orobat, herritarren ustez berrerabili litezkeen bestelako objektuak ere sartu ahalko dira, hala nola tresnak, koadroak, liburuak, jostailuak, tresna elektriko eta elektronikoko txikiak eta bazar-gauzak.

2. Hondakin horiek poltsa itxitan utzi beharko dira beti.

3. Edukiontzietan ezingo da ebakitzeko gauza izan litekeen elementurik utzi (labanak, guraizeak, kuterrak, baxerak, eta abar), ez eta produktu toxiko edo arriskutsurik ere, hala nola garbitzeko produktuak, disolbagarriak, urratzaileak, espraiak, margoak eta abar.

4. Era berean, hondakinok Garbigunera eramateko aukera egongo da.

**5. titulua. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak**

**1. kapitulua. Arau orokorrak**

**29. artikulua. Sailkapena**

1. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak honela sailkatzen dira: etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak, alde batetik, eta gainerako eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak, bestetik, obra handien ondoriozko hondakin gisa hartuko direnak.

2. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondoriozko hondakinak izango dira etxebizitza partikular, saltoki, bulego edo zerbitzuen sektoreko higiezinaren batean egindako eraikuntzako edo eraispenerako edozein obran sortutakoak, obra hori teknika samurrekoa eta eraikuntzaren eta ekonomiaren aldetik sinplea bada, erabilera komuneko instalazioen tamaina nahiz erabilera edo



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

etxebizitza eta lokalen kopurua aldatzen ez badu, eta profesional tituludunek sinatutako proiekturik behar ez badu.

3. Obra handien ondoriozko hondakinak aurreko definizioan sartzen ez diren guztiak izango dira.

4. Indarrean dauden legeek xedatutakoari kalte egin gabe, hauek obra handitzat hartuko dira beti:

- Hirigintza-obrak eta bide-azpiegiturak eraikitzeako obrak.

- Etxe berrien eraikuntza-obrak, eraikin hauen kasuan izan ezik: eraikuntzaren aldetik funts txikikoak eta teknikoki errazak izanik, bizitegiak (iraunkor nahiz aldi baterako) ez eraikin publikoak ez direnak solairu bakarrean garatuak.

- Lehendik dauden eraikinetan egiten diren esku-hartze guztiak, betiere arkitektura konfigurazioa aldatzen badiete, hau da, erabateko esku-hartzea direnak edo, esku-hartze partzial izanik ere, kanpoko konposizio orokorrean, bolumetrian edo egiturazko sistema osoan funtsezko aldaketa eragiten dutenak, edo eraikinaren erabilera bereizgarriak aldatzea xede dutenak.

- Estalki eta aurrealdeak zaharberritzeko obrak.

- Katalogatutako eraikinetan edo lege-arau baten edo hirigintza-dokumentu baten bidez ingurumenarekin loturiko babesen bat nahiz babes historiko-artistikoren bat duten eraikinetan, erabateko esku-hartzearen izaera duten obrak, bai eta esku-hartze partzialeko obrak ere, babespeko elementu edo zatiak eraginpean hartzen badituzte.

### **30. artikulua. Biltegiratzeko arau orokorrak**

1. Zeharo debekatuta dago:

- Edozein obraren ondoriozko zaborrak etxeko edo merkataritzako hondakinatarako edukiontzietan sartzea.

- Bide publikoan edozein motako hondakinak uztea 6 orduz baino gehiago, hondakinak edukiontzi edo zakutan ez badaude. Edukiontzi edo zaku horiek bide publikoa okupatu ahal izateko baimena izan beharko dute.

### **31. artikulua. Obra-edukiontziak bide publikoan**



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

1. Bide publikoa obra-edukiontzi edo -zakuekin okupatzeko, dagokion baimena eduki beharko da; era berean, okupazioari dagokion tasa aplikatuko zaio.
2. Obra baten ondorioz, 5 m<sup>3</sup> baino hondakin gutxiago sortzen badira, zakutan gorde beharko dira horiek.
3. Bete ostean, edukiontzi edo zakuak material egokia duten olana edo oihalekin erabat estali beharko dira, hondakin-gaiak isurtzea edota haizeak horiek sakabanatzea ekiditeko moduan.
4. Lanorduetatik kanpo, bete gabe dauden obra-edukiontzi edo -zakuak ere estalita geratu beharko dira.
5. Debekatuta dago obra-edukiontzi edo -zakuak uztea, beren motaren arabera ezarria duten gehieneko betetze-maila gainditzen dutenean; hala, hondakinek lortzen duten altuerak ezin izango du alboetako altuera gainditu. Halaber, ezingo zaie jarri horien tamaina edo edukiera handitzeko elementu gehigarriak.
6. Modu berean, obra-edukiontzi edo -zakuetan ezingo dira hondakin hauek utzi: bide publikoko erabiltzaileei, auzoei edo kokatuta dauden ingurunearen babeseta eta estetikari arriskutsuak zaizkien gaiak dituztenak.
7. Astelehenetik ostiralera sartu beharko dira hondakinak edukiontzi edo zakuetan, eta ostiraleko arratsaldean kendu beharko dira, asteburua libre utziz, eragozpenik edo pasatzeko oztoporik sortu gabe.
8. Aurreko puntua betetzen ez dutenei zehapena ezarriko zaie, salbu eta, salbuespen-egoerak direla eta, kasuan kasuko udal-zerbitzuen berariazko baimena lortu badute.

**32. artikulua. Garraioa**

1. Obren ondorioz sortzen diren lur eta zaborrak garraiatzeko ibilgailuek bide publikoan beren edukia ez sakabanatzeko bete beharreko baldintza guztiak bete beharko dituzte.
2. Debekatuta dago garraiatzen diren materialek kamioiko kaxa, edukiontzi edo zakuaren goialdea gainditzea.
3. Hautsa ez sakabanatzeko, olanaz edo antzeko zerbaiten bidez estali beharko da karga.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

**33. artikulua. Garbiketa**

1. Bide publikoa garbi atxiki beharko da, prebentzio-neurriak eta, hala badagokio, zuzenketa-neurriak ere hartuta.
2. Bide publikoa zikindu lezaketen kamioien zirkulazioa eragiten duten obren kasuan, gurpilak garbitzeko ekipoak instalatzeko eskatu ahalko du udalak.
3. Era berean, bide publikoa erratzez garbitzeko betebeharra ezarri ahalko da, hura onik atxikitzeko.
4. Udalak beharrezko garbiketa-lanak subsidiarioki egiteko aukera izango du; kasu horretan, obrak sustatzen edo gauzatzen dituztenek hartuko dute beren gain zerbitzuaren kostua, izan litezkeen erantzukizunak gorabehera.

**2. kapitulua. Obra handien ondoriozko hondakinak**

**34. artikulua. Aplikatu beharreko araudia**

1. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien hondakintzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten hondakinen ekoizpena eta kudeaketa estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi sektorialaren aurreikuspenen mende daude.
2. Hondakinon udal-kontrolarekin lotutako administrazio-fluxuaren kudeaketaren alderdiak arautzen dira atal honetan.

**35. artikulua. Aurretiko dokumentuak**

1. Obra txikiak ez diren gainerakoei dagokienez, proiektu teknikoarekin batera hondakinak kudeatzeko azterlana aurkeztu beharko da; eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ekoizpen eta kudeaketari buruzko araudian xedatuta dago hori.
2. Azterlanean indusketa-lurrak eta horiek nora eramango diren ere aurreikusi beharko dira, adierazitako kostuan, material hauei dagozkien kostua agertzeko, material naturalak zein kutsatuak. Horretarako, indusketa-lurren arteko balantzea egin beharko da, obran bertan berrerabiliko diren kantitateak adieraziko, eta kudeaketa-enpresa baimendu baten bidezko kudeaketa proposatuko da, obraren barruan konpentsatu ezin diren kantitateei dagokienez.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

3. Era berean, eraikinak eta lurzoruak deskutsatzearen ondoriozko kostuak ere jaso beharko dira aurrekontuan.
4. Azterlana balioztatzeko orduan, beharrezkoa izango da aurrekontuak, tratamendu-tarifatik datozen kostuak ez ezik, elementu hauen gastuak ere estaltzea:
  - Obran bertan hondakinen sailkapena egitea, aplikagarria den araudiarekin bat.
  - Biltegiatzea, babes-neurriak aplikatuta.
  - Kargatzea eta amaierako helmugara garraiatzea.
  - Hala badagokio, in situ balioztatzea horretarako ezarritako babes-neurriak hartuta, programa analitikoaren kostuak barne.
  - Hala badagokio, prestakuntza- eta zaintza-kostuak, hondakinak kudeatzeko plana behar bezala ezartzeko.
5. Aurrekontuan ez da inola ere onartuko diru-sarrerarik egozte, esaterako, metalak saltzeagatik edo bestelako hondakinak balio positiboarekin kudeatzeagatik.

**36. artikulua. Hondakinak bereizteko eremurik eza**

1. Espazio fisikorik eza edo segurtasun-arrazoia tartean direla, teknikoki ezinezkoa bada hondakinak jatorrian bereiztea, hondakinen jabe den pertsonak horien banaketa egiteko agindu beharko dio hondakinak kudeatzeko pertsona bati, obrakoa ez den eraikuntza eta eraispenerako hondakinak tratatzeko instalazio batean.
2. Espazio falta justifikatzeko, ez da nahikoa izango egiaztatzea bide publikoan zein orubean ezinezkoa dela bereizi beharreko hondakin-mota adina edukiontzi kokatzea.
3. Eraikinaren egituran edukiontziak instalatzeko aukera aztertu beharko da, bai eta edukiontzi mugikorrek erabiltzekoa ere. Edukiontzi mugikorrek hondakin-mota bat baino gehiago (bata bestearen ondoren, ez aldi berean) biltzeko edukiontziak dira. Hondakin horiek tarteko puntuetan gordeko liriteke aldi baterako, eraikineko solairuetan. Hondakin-mota baten nahikoa bolumena metatzean, hondakin horiek guztiak edukiontzira eramango liriteke aldi berean, hura bete, jaso eta beste batekin ordeztuko.





### **37. artikulua. Finantza-bermea**

1. Hirigintza-lizentzia behar duten obren pertsona eta erakunde sustatzaileek, bai eta exekuzio aginduak direla-eta horretara behartuta daudenek ere (premiazkoak direnean izan ezik), finantza bermea eratu beharko dute, udalak obraren baldintzetan ezartzen duen zenbatekoko.
2. Ez dute bermerik eratu beharko EMAS Ingurumen Kudeaketa eta Auditoretza Sistema Komunitariora atxikitako erakundeen erregistroan izena emandakoek, indarrean dauden arauk ezarritako baldintzetan.
3. Bermearen zenbatekoa kalkulatzeko, hondakinak kudeatzeko azterlanean hondakinen kudeaketarako aurreikusitako kostua hartuko da oinarri, eta ondoren, 1,2 biderkatze- faktorea aplikatuko zaio horri. Inola ere, ez da 250 euro baino txikiagoa izango (zenbateko hori urtero eguneratuko da, denbora-tarte horretan metatutako KPlaren arabera).
4. Bermearen helburua hondakinen kudeaketa egokia bermatzea da, edo, bestela, udalari aukera ematea modu subsidiarioan jarduteko behar adinako baliabideak edukitzeko. Hortaz, kudeaketaren kostu guztiak estaltzeko moduan kalkulatu beharko da zenbatekoa, barne hartuta bereizte-, biltegitratze-, garraio- eta tratamendu-kostuak.
5. Aurreko paragrafoan ezarritakoa bermatzeko, udaleko zerbitzu teknikoek hondakinak kudeatzeko azterlana ebaluatuko dute, eta, hala badagokio, sustatzailearen aurreikuspenen arabera dagokiona baino zenbateko handiagoa ezarriko du udalak, behar bezala arrazoituta.
6. Edonola ere, bermearen zenbatekoa eskatutakoa izan beharko da, harik eta udalak hura itzultzeko eskaeraren aldeko ebazpena ematen duen arte.
7. Bermea eskudirutan eratu ahalko da, zor publikoko baloreetan, abal bidez, kauzio-aseguruko kontratu bidez edo zuzenbideak baimentzen duen beste edozein modu baliatuta. Edonola ere, gauzatzen den lehenengo errekerimenduan ordaintzekoa izan beharko da, ordena- eta eskusio onurarik gabe.
8. Udalak, bermea eskudirutan eratu eta 20 urte igaro ostean, hura itzultzeko eskubidearen preskripzioa aldarrikatuko du, interesdunek jabetza-eskubidea gauzatzea eragiten duen kudeaketarik egiten ez badute.



### 38. artikulua. Lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa-txostena

1. Pertsona edo erakunde sustatzaileak, obrak amaitutakoan, hondakinen kudeaketaren justifikazioa egingo du, eta ez da ziurtagiri partzialik onartuko.
2. Bermea itzul dakiola eskatzeko, eskaera bat aurkeztu beharko du berariaz, bai eta amaierako kudeaketa-txostena ere, obrako Zuzendaritza Fakultatiboak sinatua eta indarrean dauden arauk ezarritakoarekin bat egiaztatutakoa. Zuzendaritza Fakultatiboaren sinaduraren ordezkari ezingo da lurzoru kutsatuen inguruko erakunde akreditatuarena aurkeztu, lurzoria kutsa lezaketan jarduerak jasaten ari diren edo jasan dituzten eraikinen eraispenak ez badira.
3. Bermea itzultzearen zilegitasuna oinarritzeko, Txostenak barne hartu beharko ditu hondakinak kudeatzeko azterlaneko aurreikuspenetan izandako desbideraketak justifikatzeko pertsona edo erakunde sustatzaileak egiten dituen argudiaketak.
4. Gainera, amaierako txostenak hondakinen xedeari lotutako ziurtagiri guztiak jasoko dituen eranskina izango du.
5. Hondakinen kudeaketaren ziurtagiriek egiaztatu beharko dute horien jatorria amaierako txostenaren xede den obra dela.
6. Dokumentu hauek onar daitezke egindako kudeaketaren justifikazio gisa:
  - a) Hondakinen kudeatzaileak igorritako ziurtagiria.
  - b) Hondakina kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduaren kontrol- eta jarraipen dokumentua.
  - c) Kutsatu gabeko lur eta harriak betelan baimendu moduan entregatu izanaren frogagiria.
  - d) Xede den hondakinaren salmenta-faktura.
  - e) Emate-agiria.
  - f) Obraren bertan balioztatutako kutsatu gabeko lur eta harrien kasuan:
    - Lur horien aplikazioaren inguruko obra-zuzendaritzaren zinpeko adierazpena.
  - g) Beste obra batzuetan balioztatutako kutsatu gabeko lur eta harrien kasuan:
    - Kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduak igorritako ziurtagiria.
    - Kudeaketarako baimendutako pertsona edo erakundearen kontrol- eta jarraipen dokumentua.
    - Helburu-obraren proiektuaren laburpena, zeinean lur horien inportazioa zehaztuko baita.
  - h) In situ balioztatutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik datozen materialen kasuan:



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

- Kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduak instalazioan jardungo duen pertsona edo erakundea onartzeko emandako baimena egiaztatzea.

- Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren zinpeko adierazpena, bertan balioztatutako materialak erabili direla adierazten duena.

i) Obran balioztatutako eta beste obra bati emandako materialen kasuan:

- Kudeatzeko pertsona edo erakunde baimenduak instalazioan jardungo duen pertsona edo erakundea onartzeko emandako baimena egiaztatzea.

- Helburu-obraren proiektuaren laburpena, zeinean material horien erabilera erregistratuko baita.

- Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren zinpeko adierazpena, bertan balioztatutako materialak erabili direla adierazten duena.

7. Amaierako txostenak lurzorua kutsa lezakeen jarduera bat jasan duen edo jasaten ari den eraikina eraisteko obra baten aipamena egiten badu, lurzoru kutsatuen inguruko erakunde akreditatu batek izenpetu beharko du hura, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuarekin bat; dekretu horrek lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak akreditatzeko sistema ezartzen du.

8. Obrak hainbat eraikinen eraisketa barne hartzen duenean, aurreko paragrafoan adierazitako erakunde akreditatuaren esku-hartzea, hala badagokio, kutsatuta egon litezkeen eraikuntzetara mugatuko da, baldin eta eraikinon eraispenean sortutako hondakinen trazabilitatea bermatzen bada.

9. Amaierako kudeaketa-txostenak 7. paragrafoan aipatutako obra bat aipatzen duenean, Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio udalak, haren nahikotasuna ebaluatu dezan. Hilabete igarota erantzun txostenik jaso ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

10. Edozein kasutan ere, aurreko paragrafoan adierazitako aldeko txostenak (berariazkoa zein presuntziozkoa) ez du udalaren ebazpena baldintzatuko. Azken batean, hark hartuko du bermearen helmugaren inguruko erabakia.

### **39. artikulua. Urbanizazio-proiektuen amaierako kudeaketa-txostena**

1. Urbanizazio-proiektuak onartzeko ebazpenean amaierako kudeaketa-txostena aurkeztu beharko da, indarrean dauden arauak eskatzen duten edukia izan eta Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu beharko duena.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

2. Hondakinak desegoki kudeatzen diren zantzuak aurkituz gero (bereiztean nahiz helmugan), ingurumen-erakundeari jakinarazi beharko zaio, egoki irizten dizkion neurriak har ditzan; horrek ez ditu alde batera utziko bideen garbiketa edo bestelako en gaineko eskumenei jarraikiz udalak ezar ditzakeen zehapenak.

**40. artikulua. Bermea itzultzeko eskaera**

1. Hondakinen ekoizleak Hirigintza Sailari eskatu beharko dio eraturako bermea itzultzeko. Dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu horretarako:

- Eskaera-orria.
- Eraturako bermearen frogagiria.
- Amaierako kudeaketa-txostena, egindako kudeaketa-eragiketak egiaztatze dokumentuak barne.

2. Nolanahi ere, obrak gauzatzeko epea amaitu eta sei hilabete igarota, emandako lizentzia edo luzapenen arabera, amaierako kudeaketa-txostena aurkezteko eskatuko dio udalak lizentziaren titularrari (pertsona zein erakunde bat), egindako kudeaketa-eragiketak egiaztatze dokumentu guztiak barne.

3. Hilabeteko epean errekerimendu hori betetzen ez bada, eta horren ondorioz ezar litezkeen zehapenak gorabehera, bermea exekutatu ahalko du udalak, interesdunari entzun ostean.

**41. artikulua. Bermea itzultzeko proposamena**

1. Udaleko zerbitzu teknikoek bermeak itzultzeko eskaerei lotutako txostenak egingo dituzte, hirigintza lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa-txostenak ebaluatu ostean, eta kontuan hartuta indarrean dauden arauak xedatutakoari jarraikiz egiaztapen-erakundeek igortzen dituzten txostenak.

2. Txosten teknikoek bermearen itzulketa arrazoituta proposatu beharko dute, enpresa edo pertsona sustatzaileak egiaztatzen duenean hondakinen kudeaketa egokia egin dela, udaleko zerbitzu teknikoek iritziz hondakinak kudeatzeko azterlanean aurreikusitakoekin arrazoizko neurri batean bat datozen kantitateetan. Bat-etortze horrek ez du zertan zehatza izan; aldiz, kasu bakoitzean hondakinen ekoizleak aurkezten dituen egoerak eta justifikazioak aztertuko dira.



#### **42. artikulua. Errekerimendua**

1. Kudeaketa-azterlaneko aurreikuspenei dagokienez amaierako kudeaketa-txostenean dauden desbideraketak nahikoa justifikatzen ez badira, falta diren hondakinak akreditatzeko eskatuko zaio pertsona edo erakunde sustatzaileari, horretarako hamar eguneko epea emanda.
2. Pertsona edo erakunde sustatzaileak ematen duen informazio osagarria jaso ostean, bermea itzultzea proposatuko dute zerbitzu teknikoek, betiere hondakinen kudeaketa behar bezala justifikatuta dagoela irizten badiote.
3. Aldiz, hondakinen kudeaketa egokia akreditatuta ez dagoela irizten badiote, bermea konfiskatzea proposatuko dute, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.

#### **43. artikulua. Bermea exekutatzeko proposamena**

1. Txosten teknikoak arrazoituta proposatu beharko du bermea exekutatzea, eta hurrengo ataletan adierazitako elementuak zehaztu beharko ditu.
2. Alde batetik, bermatutako zenbateko osoa konfiskatzeko egokitasuna azaldu beharko da; konfiskazio partziala izanez gero, arrazoia azaltzeaz gainera, exekutatu beharreko zenbatekoa ere justifikatu beharko da:
  - a) Exekuzioa osoa izango da ezein hondakinen helmuga justifikatzen ez denean, edota hondakin guztiak edo batzuk obra egiten den lekuan edo udalerriko beste edozein puntutan utzi direla egiaztatzen denean.
  - b) Gainerako kasuetan, partziala izango da, eta sustatzaileak helmuga egiaztatu ez duen hondakinen kudeaketa integralak (bereiztea, biltegitratzea, kargatzea, garraiatzea eta tratatzea) udalari eragingo liokeen kostua izango da zenbatekoa.
3. Konfiskatutako bermearen xedea: hondakinen kudeaketa subsidiariora bideratu ahalko da, edota udalerrian ingurumena hobetzeko neurriak exekutatzera.



#### **44. artikulua. Ebazpena**

1. Bermea exekutatzearen inguruko ebazpena eman baino lehen, hamar egunez entzunaldia emango zaio hondakinen ekoizleari, eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahalko ditu hark.

2. Eskaera egiten denetik hiru hilabeteko epean, ebazpena eman eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Prozedura gelditu bada interesdunari egotz dakioken arrazoiren batengatik, ebazpena ebazteko eta jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo da. Adierazitako epea igarota, aldeko ebazpena eman dela ulertu ahalko da.

3. Aurreko atalean aipatutako epea igarota,

- Eskudirutan edo zor-baloreetan eraturako bermeen kasuan, epe hori bukatutakoan, bermearen zenbatekoa itzuli beharko du udalak, gehi aipatu epea bukatzen denetik bermea itzuli den arteko aldiari dagokion diruaren legezko interes-tasak, baldin eta bermea ez itzultzeko arrazoia udalari egotz badakioke.

- Abal edo kauzio-aseguruen bidez eraturako bermeen kasuan, udalak itzuli beharko ditu, eta interesdunak itzuli arteko aldiari dagozkion bermeen kostuak erreklamatu ahalko ditu.

#### **45. artikulua. Jarduketa, hondakinak aurkitzen diren kasuetan**

1. Hondakin guztiak edo zati bat obra egin den lekuan nahiz udalerriko beste edozein puntutan utzi badira bermea erabat exekutatu ostean, udalak kudeatu beharko ditu horiek.

2. Aipatutako lekuetan aurkitutako hondakinen kudeaketaren kostua 43.2.a) artikuluaaren arabera kalkulaturikoa baino txikiagoa balitz, udalerrian ingurumena hobetzeko jarduketetara bideratuko da aldea. Bermearen guztizkoa osatu arteko gainerako zenbatekoa interesdunari itzuliko zaio.

3. Aurkitutako hondakinen kudeaketaren kostua bermearena baino handiagoa balitz, premiamendu bidea erabilita erreklamatu da aldea.

#### **46. artikulua. Jarduketa, hondakinak aurkitzen ez diren kasuetan**

1. Amaierako kudeaketa-txostenean akreditatu gabeko hondakinak aurkitzen ez direnean, exekutaturikoa bermearen zenbatekoa udalerrian ingurumena hobetzeko jarduketak gauzatzera bideratuko da.



**47. artikulua. Lehen erabilerarako lizentzia**

1. Hondakinak desegoki kudeatzeak ez du lehen erabilerarako lizentzia ematea baldintzatuko.

**3. kapitulua. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak.**

**48. artikulua. Hondakinen xedea**

1. Obra-lizentzia ematen deneko erabakian interesdunak proposatutako xedearen arabera zehaztuko da hondakinak kudeatzeko modua. Honela egin ahalko da kudeaketa:

- Garbigune batean
- Kudeaketa-enpresa baimendu baten bidez.

2. Edonola ere, hondakinen lagapena dokumentu frogagarri batean jaso beharko da.

**49. artikulua. Hondakinak bereiztea**

1. Obrak hasten direnetik bertatik bete beharko dira gutxienerako bereizte-baldintzak, hondakin kategoria horiek banan-banan bereizi, biltegiratu eta kudeatuta (adierazi egokitzen jotzen direnak, hurrengo hauek gutxienerakoak dira):

- Hondakin arriskutsuak.
- Hormigoiz, adreilu, baldosa, harri eta zeramikazko hondakinak (sabai aizun, moldura eta paneletako igeltsua izan ezik, gainerako harrizko materialen zenbait aprobeixamendu galarazten ditu eta).
- Amiantodun hondakinak.
- Gainerako hondakinak (igeltsua barne).

2. Obraren tamaina aintzat hartuta, baldintza zorrotzagoak ezarri ahalko dira lizentzian.

3. Obra txikietatik ateratako zuntz-zementuzko edo amiantoazko hondakinak desinstalatu eta garraiatzeko prestatu behar dira eta Amiantoaren Arriskua duten Enpresen Erregistroan inskribatutako enpresek kudeatu beharko dituzte (AAEE1), 396/2006 ERREGE DEKRETUA2ri, martxoaren 31koari, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanpostuei aplikatzeko gutxienerako segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituenari jarraiki.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

<sup>1</sup>Amianto Arriskua duten Enpresen Erregistroan izena emandako enpresen zerrenda:  
[http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/6173/es\\_2282/adjuntos/REGISTRO\\_AMIANTOEUSKC](http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/6173/es_2282/adjuntos/REGISTRO_AMIANTOEUSKC)

[A ST.pdf](#) Zabortegi baimenduen zerrenda, zeinean amianto aglomeratuaren hondakinak onartzen dituztenak zehazten baitira:  
[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r494892/es/contenidos/informacion/resid\\_no\\_peligrosos/es\\_1005/adjuntos/vertederos.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r494892/es/contenidos/informacion/resid_no_peligrosos/es_1005/adjuntos/vertederos.pdf)

<sup>2</sup>396/2006 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua dagoen

lanetan aplikagarri diren gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzei buruzkoa:  
<http://www.boe.es/boe/dias/2006/04/11/pdfs/A13961-13974.pdf>





#### **4. kapitulua. Udal obrak**

##### **50. artikulua. Agregakin birziklatuak erabiltzea**

Agregakin-kontsumoa eragiten duten eta udalak sustatutakoak diren obretan, kudeaketa-erakunde baimendutik datorren ahal adina material birziklatu erabili beharko da, betiere materialok bideratuko diren erabilerei buruzko indarrean dauden arauetan ezarritako preskripzio tekniko eta ingurumenekoen arabera.

##### **51. artikulua. Hondakinen kudeaketa udal-obra handietan (aurreratzean udal-obra)**

1. Udal-obra HANDIEI buruzko hondakinak kudeatzeko azterlanaren idazketan prebentzio-, bereizte- eta birziklatze-helburuak txertatuko dira. Kontratatistak horiek erdietsi beharko ditu, eta, hala izango ez balitz, udalak zigorrak ezarri ahalko ditu.

2. Udal-obra HANDIEK hondakinak kudeatzeko plan bakarra izan beharko dute, kontratista nagusiak aurkeztuko duena eta ondoren, udalak hura onartuta, kontratu-izaera izango duena. Planean hondakinak kudeatzeko azterlanean ezarritako helburuak nola lortuko diren azaldu beharko da.

3. Ezarritako helburuak gainditzea hobekuntza gisa hartuko da obrak esleitzeko prozesuan.

4. Obrak amaituta, kontratista nagusiak amaierako kudeaketa-txostena aurkeztu beharko du, indarrean dauden arauak eskatzen duten edukia izan eta Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu beharko duena. Planean hondakinak kudeatzeko azterlanean ezarritako helburuak zenbateraino erdietsi diren azaldu beharko da.

5. Kontratista nagusiak (pertsonek edo erakunde bat izan) azpikontraten jarduketara koordinatu eta gainbegiratu beharko du, hondakinak kudeatzeko plana betetzen dela bermatzeko.

6. Ezarritako helburuak ez betetzea nahiz hondakinen kudeaketa ez egiaztatzea kontratuaren urraketa gisa hartuko dira.

7. Aurrekoaz gain, hondakinen kudeaketa desagokoa eginez gero, ingurumen-erakundeari jakinaraziko zaio, beharrezko neurriak har ditzan.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

**6. titulua - Ikuskapena, kontrola eta zehapenak**

**1. kapitulua. Ikuskapena eta kontrola**

**52. artikulua. Ikuskatze-zerbitzua**

1. Hauexek arduratuko dira ordenantza honetan ezarritakoa ikuskatu eta zaintzeko funtzioak gauzatzeaz: ingurumenaren alorreko eskumena duen sailari atxikita dauden eta aipatutako funtzio horiek esleituta dituzten langileak, eta udaltzainak.

2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, izendatu den zerbitzu eskuduneko teknikarien zeregina ikuskatu ahalko dute.

3. Bere eskumenak gauzatu bitartean, beste udal-zerbitzu batek ordenantza hau betetzen ez dela hautemango balu, zerbitzu eskudunari jakinaraziko dio.

4. Egindako ikuskatze-bisitak ikuskatze-aktetan gauzatuko dira. Jardun duen pertsonak sinatuko ditu, eta pertsona edo erakunde interesdunari kopia bat emango zaio. Akta horiek, era berean, indarrean dauden legeek ezarritako eskakizunak beteko dituzte eta egiatasun-presuntzioa izateaz gainera, froga gisa balioko dute, pertsona edo erakunde interesdunek, beren eskubide eta interesak defendatzeko, aurkez litzaketan gainerako frogak gorabehera.

**53. artikulua. Ikuskatze-zerbitzuen izaera**

1. Indarrean dauden legeekin bat, aurreko artikuluan aipatutako langileak, beren ikuskatze-funtzioen barruan, bai eta udaltzainak ere, agintaritza-agentek izango dira, eta dagokien akreditazioa dutela, aurrez jakinarazi gabe sartu ahalko dira ordenantza honetan araututako jarduerak garatzen diren instalazioetara.

2. Era berean, zabor-poltsen edo gainerako hondakin-edukiontzien edukia ikuskatu ahalko dute.

**54. artikulua. Lankidetzarako betebeharra**

1. Hondakinen jabe, ekoizle nahiz kudeatzaile diren pertsona edo erakundeak instalazioetara sartzen utzi eta erraztu beharko diete funtzionarioei, bai eta haiekin lankidetzan aritu eta haiek beren ikuskatze-lanak egiteko eskatzen dituzten dokumentu guztiak eman ere.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

**55. artikulua. Laguntza teknikoak**

1. Udalak kontrol-lanak egin ahalko ditu kanpoko pertsona fisiko nahiz juridikoen laguntzaz. Horiek beren jarduketa guztiei buruzko txostena egingo dute, eta behatutako gertakariak material grafikoen bidez dokumentatuko dituzte.
2. Kontrol horien emaitza salaketa moduan hartuko da, egoki litezkeen zehapen-prozedurak ofizioz irekitzeari dagokionez.

**2. kapitulua. Arau-haustek eta zehapenak**

**56. artikulua. Erantzuleak**

1. Erantzuleek beren gain hartu beharko dituzte ordenantza honetan adierazitako betebeharrak ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak, euren ekintzetan jatorria dutenak ez ezik, beren ardurapean dituzten pertsonen ekintzetan jatorria dutenak ere bai.
2. Ordenantza honetan ezarritakoari dagokionez, indarrean dauden legeekin bat, arduradun titular bat izango dute beti hondakinek, eta beren jabe, ekoizle zein kudeatzaile diren pertsona edo erakundeei egokituko zaie kargu hori.
3. Administrazio-erantzukizunetik salbuetsita geratzeko, dagozkion ordenantzak eta gainerako arau aplikagarriak betez entregatu beharko zaizkio hondakinak udalari, edota hondakinak kudeatzeko eragiketak egiteko administrazioaren baimena duten pertsona edo erakundeei hondakinak laga, Ordenantza honetan jasotakoarekin bat, eta lege eta araudien betekizunak betez.
4. Erantzukizuna solidarioa izango da hondakinen jabe, ekoizle eta kudeatzaile diren pertsona edo erakundeek hondakinak arau aplikagarrietan adierazitakoei ez beste pertsona fisiko edo juridikoei entregatuz gero, edota erantzule diren pertsona edo erakundeak egon arren, ezinezkoa suertatuz gero horietako bakoitzak arau-haustean izandako partaidetza-maila zehaztea.
5. Betebehar kolektiboen kasuan, adibidez, edukiontziak edo konpostaje komunitarioko instalazioak erabili, kontserbatu eta garbitzeko lanak, talde horrek hartuko du bere gain erantzukizuna, edota horretako kide diren pertsonen, hura eratuta ez dagoen kasuetan.



#### **57. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa**

1. Arau-hauste arinak urtebete igarota preskribatuko dira, larriak hiru urte igarota eta oso larriak bost urte igarota.
2. Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea.
3. Arau-hauste jarraituen kasuan, arau-haustea osatzen duen jarduera edo azken egintza amaitzen den unean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea. Arau-haustea osatzen duten gertakari edo jarduerak ezezagunak badira kanpo-aztarnarik uzten ez dutelako, gertakari edo jarduerak agerian geratzen direnean hasiko da epea zenbatzen.
4. Zehapen-prozedura interesduna jakitun dela hasteak preskripzioa eten egingo du; preskripzio-aldiari berrekin egingo zaio zehapen-espeditentea hilabete baino gehiagoz geldiarazita baldin badago ustez arduraduna den pertsona edo erakundeari egotzi ezin zaion kausagatik.
5. Arau-hauste arinen ondorioz ezarritako zehapenak urtebete igarota preskribatuko dira, arau hauste larrien ondorioz ezarritakoak hiru urte igarota eta arau-hauste oso larrien ondorioz ezarritakoak, berriz, bost urte igarota.
6. Zehapenen preskripzio-epea zehapena jartzeko erabakia indarrean hasten den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen.
7. Preskripzio-epearen zenbaketa geratu egingo da, betearazteko prozedura hasiz gero, pertsona edo erakunde interesduna jakitun dela. Arau-hausleari ezin egotz dakioken arrazoiren bat dela-eta prozedura hori hilabetetik gora geldirik badago, jarraitu egingo da epea zenbatzen.

#### **58. artikulua. Jatorrizko egoerara itzularazteko betebeharra**

1. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeagatiko arau-hausteen ondoriozko erantzukizunez gainera, aldatutako elementuak jatorrizko egoerara itzularazteko eskatu ahalko zaio arau-hausleari.
2. Hori egiten ez bada, udalak gauzatuko du itzulketa subsidiarioki. Arau-haustearen erantzuleak bere gain hartuko ditu egin beharreko jarduketek sortutako gastuak, eta, era berean, eragindako kalte eta galerei dagokien kalte-ordaina emateko eskatuko zaio.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

3. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kasuan, kostu eta kalte-ordain horiek 37. eta 50. artikuluek aipatutako bermea exekutatuta berreskuratu ahalko dira.

**59. artikulua. Zehapen-prozedura**

1. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien administrazioko zehapen-prozedurak otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoari jarraikiz izapidetuko dira (lege hori Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehapen-ahalmenari buruzkoa da).

2. Udalak izango du zehapen-eskumena, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.n) artikuluari jarraikiz.

**60. artikulua. Administrazioaren arau-hausteak**

1. Administrazioaren arau-hauste gisa hartuko dira ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duten egintzak edo ez-egiteak, bai eta ordenantzan jasotako gaiak arautzen dituzten estatuko zein autonomia-erkidegoko legerian tipifikatuta dauden egintzak edo ez-egiteak ere; hori gorabehera, ordenantza honetako manuek arau-hausteak zehatzago identifikatzen lagundu ahalko dute.

2. Administrazioaren arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat.

**61. artikulua. Arau-hauste arinak**

1. Jokabide hauek hartuko dira arau-hauste arintzat:

- a) Hondakinak edukiontzietatik edo kasuan-kasuan xedatutako lekuetatik kanpo uztea.
- b) Bide publikoa hondakinekin edo hondakin-poltsetatik irten litezkeen likidoekin zikintzea.
- c) Edukiontzietan pintadak egitea edota itsasgarriak eta kartelak ipintzea.
- d) Hondakinak gaizki itxitako poltsatan edo poltsa desegokitan uztea.
- e) Edukiontzietan hondakin likidoak edota likidogarriak uztea (sukaldeko olioak berari dagokion edukiontzian uztea izan ezik).
- f) Hondakinak soltean uztea, ordenantzak poltsak erabili behar direla xedatua badu.
- g) Gaikako bilketako edukiontzietan horiei ez dagozkien hondakinak uztea, edo gainerakoak kategoriako hondakinen edukiontzian gaika biltzen diren hondakinak uztea.
- h) Hondakinak udal-edukiontzietan utzi daitezkeen egunak edo ordutegiak ez errespetatzea.



**BERANGOKO UDALA**  
**BIZKAIA**

- i) Edukiontzia edo hondakinak bide publikora ateratzea ezarritako egun edota ordutegitik kanpo, edo bilketa-zerbitzuak igaro ostean, xedatutako epean ez kentzea.
- j) Etxe edo saltokietan sortutako hondakinak zakarrontzietan uztea.
- k) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak ez estaltzea, ordenantza honen arabera nahitaezkoa izanik.
- l) Saltokietan sortutako papera-kartoizko hondakinak tolestu gabe edota ordenantza honetan xedatutakoa urratuz uztea, betiere oinezkoak edo ibilgailuak bertatik ibiltzea oztopatzen badute.
- m) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak baimendutakoa baino denbora-tarte luzeagoz uztea bide publikoan.
- n) 25 cm baino gehiago gaintzea edukiontzi edota ibilgailuetako ertzek mugatzen duten planoan, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak utzi nahiz garraiatzeko orduan.
- o) merkataritza jarduera beraren hondakinak edukiontzian uztea, ingurumenean kalteak, pertsonengan eragozpenak edo osasun arazoak sortzen dituztenean. Horretarako, establezimendu horien jabeek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, lixibatuak, kiratsa eta beste edozein arazo ekiditeko (hala nola, poliespanezko bandejak garbitu egingo dira alde zurretatik, kiratsak saihesteko, etab.)

2. Era berean, arau-hauste arina izango da ordenantza honetan ezarritako beste edozein debeku ez betetzea, edota horrek behartzen dituen ekintzak ez egitea, baldin eta arau-hauste larri edo oso larritzat hartzen ez badira, hurrengo artikuluei jarraikiz.

## **62. artikulua. Arau-hauste larriak**

1. Jokabide hauek hartuko dira arau-hauste larritzat:

- a) Bide publikoaren inguruko garbiketa-betebeharrak ez betetzea eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzi edo zakuak ordeztu edo kentzeko orduan.
- b) Giza kontsumokoak ez diren animalien azpiproduktuen eta hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duen informaziorik ez ematea edo ez aurkeztea ordenantza honetan ezarritako baldintzei jarraikiz.
- c) Autokonpostajearen bidez lortutako konposta erabiltzailearen jabetzatik kanpo biltegitratzea, sakabanatzea edo uztea, udalaren baimenik gabe.



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

- d) Hondakinak espazio publikoetan uztea, bilketa-zerbitzua aldi baterako aldatu edo eten den larrialdi-egoeretan edo ezinbesteko kasuetan, salbu eta udalaren baimena lortu bada.
- e) Hondakinak udaleko bilketa-zerbitzuaz besteko baten bidez kudeatzea, ordenantza honen arabera horien bitartez egitea nahitaezkoa izanik.
- f) Hondakinak udalak baimendu gabeko erakunde bati entregatzea.
- g) Bilketa-zerbitzutik kanporatutako pertsonak udal-erakundeetan hondakinak uztea.
- h) Hondakinak edukiontzietan haragi edo arrainen hondakinak uztea, produktuok saltzen dituzten saltokietatik badatoz.
- i) Hondakinak kargatu, deskargatu eta garraiatzeko eragiketak eragozteko edo zailtzea.
- j) Udal-erakundeak udalaren baimenik gabe lekuz aldatzea, eta horiek beren jatorrizko kokapenera dagokien baldintzetan ez itzultzea.
- k) Hondakinak kontrolik gabe utzi, isuri, biltegitatu edo deuseztatzea eremu publiko edo pribatuetan, baldin eta hori arau-hauste oso larria ez bada.
- l) Udalak emaniko ontziak hondatzea, arau-hauste oso larritzat jotzen ez denean.
- m) Eraikuntzako eta erakundearen hondakinak edukiontzietan edo zakuak ez kentzea, udal zerbitzuek hala eskatzen dutenean ingurumeneko edo zirkulazioko arrazoiengatik edo bide publikoan ekitaldiren bat egiteagatik.
- n) Edukiontzietan edo zakuak instalatzea, bide publikoa okupatzeko baimenik gabe.
- o) Altzariak, etxetresna elektrikoak, tresnak edo tamaina handiko bestelako hondakinak beste hondakin batzuetarako edukiontzietan uztea, bai eta hondakinok bide publikoan edo orube nahiz lur publiko zein pribatuetan uztea ere.
- p) Sukaldeko olio erabilia berari ez dagozkion hondakinak uztea, edota saneamendu-sarera isurtzea.
- q) Pilak beste hondakin batzuetarako poltsa edo edukiontzietan uztea.



**BERANGOKO UDALA**  
**BIZKAIA**

- r) Bide publikoan ibilgailuak uztea.
- s) Animalien gorpuak edo hondakinak uztea, hondakinen edukiontzietan sartzeari edota ehorztea edo erraustea, baldin eta hori arau-hauste oso larria ez bada.
- t) Hondakinak deskargatzea edota eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak manipulatzeari, baimendutako ordutegitik kanpo.
- u) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak desegoki bereiztea.
- v) 50 cm baino gehiago gainditzea edukiontzi edota ibilgailuetako ertzek mugatutako planoan, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak utzi nahiz garraiatzeko orduan.
- w) Edukiontzien edo ibilgailuen altuera handitzea elementu osagarriak baliatuta, baldin eta horrek arrisku larrikeria eragiten ez badie pertsonari.
- x) Erreketak edo sua udal-baimenik gabe edo udalari aurrez jakinarazi gabe egitea.
- y) Urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago egitea.
- z) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak baimendu gabeko leku batean metatzea edo isurtzea, baldin eta hori arau-hauste oso larria ez bada.
- aa) Hondakin arriskutsuak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzi edo zakuetan uztea, behar bezala bereizi gabe.
- bb) Onartzen ez diren hondakin arriskutsuak udal-edukiontzietan uztea.
- cc) Garraio-eragiketarako egin bitartean eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak erortzea.
- dd) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko eskatzen den finantza-bermea ez eratzea.
- ee) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinei buruzko amaierako kudeaketa-txostena ez aurkeztea, hala eskatzen den kasuetan.
- ff) Udalaren ikuskatze- edo kontrol-lanak oztokatzea edo eragozteak.





**63. artikulua. Arau-hauste oso larriak**

1. Jokabide hauek hartuko dira arau-hauste oso larritzat:

a) Udal-educiontzietako hondakinak manipulatzera edo hondakinak horietatik ateratzea.

b) Educiontziak lapurtzea.

c) Bide publikoan hondakinak biltzeko baimenduta ez dauden educiontziak instalatzea.

d) Hondakinak kontrolik gabe utzi, isuri, biltegitatu edo deuseztatzea eremu publiko edo pribatuetan, pertsoneri edo ingurumenari arrisku larria eraginez.

pertsoneri edo ingurumenari arrisku larria eraginez.

e) Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak baimendu gabeko leku batean metatu edo isurtzea, pertsoneri edo ingurumenari arrisku larria eraginez.

f) Amiantodun hondakinak utzi, metatu, biltegitatu, isuri edo deuseztatzea instalazio baimenduetatik kanpo edota kudeatzaile baimendurik gabe.

g) Educiontzien edo ibilgailuen altuera handitzea elementu osagarriak baliatuta, pertsoneri arrisku larria eraginez.

h) Udalak emandako ontziak edota konpostajerako instalazioak larri kaltetzea.

i) Animalien gorpuak edo hondakinak uztea edota ehorztea edo erraustea, pertsonen osasuna edo ingurumena arrisku larrian jarrita.

j) Udal-eskumeneko hondakinak udalaren baimenik gabe kudeatzea.

k) Gurpilak garbitzeko gailuak edo erraztatzeke ekipamenduak instalatzeko betebeharra ez betetzea, udalak hala eskatuagatik.

l) Urtebetean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.



#### **64. artikulua. Zehapenak**

1. Artikulu honetako hurrengo paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, eta salbu utzita egoki litekeen zigor-erantzukizuna edo erantzukizun zibila, ordenantza honetako aginduen arau-hausteei dagozkien zehapenak ezartzeko, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 141. artikulua hartuko da oinarri:

a) Arau-hauste oso larriak: 1.501,00 eurotik 3.000,00 eurora bitarteko isunak.

b) Arau-hauste larriak: 751,00 eurotik 1.500,00 eurora bitarteko isunak.

c) Arau-hauste arinak: 750,00 eurorainoko isunak.

2. Jarraian zerrendatzen diren idazpuruetan aurreikusitako arau-hausteei dagozkien zehapenak ezartzeko, uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, hartuko da oinarri.

a) Udal-eskumeneko hondakinak kontrolik gabe utzi, isuri edo deuseztatzea.

b) Dokumentazioa aurkezteko betebeharra ez betetzea, bai eta animalien hondakinen eta azpiproduktuen kudeaketa egokia egiaztatzen duen dokumentazioa zaindu eta mantentzeko betebeharra ez betetzea ere, hala eskatuta egonagatik.

c) Udalaren zaintza-, ikuskatze- eta kontrol-lanak eragozteak.

d) Hondakin arriskutsuak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinekin edota bestelako etxeko hondakinekin nahastea.

e) Hondakinak udala ez besteko erakundeei entregatzea, udalari eman behar zaizkiolarik, eta erakundeok hondakinok onartzea, zerbitzu hori udalari dagokiolarik.

3. Arau-hauste bat baino gehiago gertatuz gero, kalifikazio handiena duena aplikatuko da.

#### **65. artikulua. Zehapenen mailak ezartzeko irizpideak**



**BERANGOKO UDALA  
BIZKAIA**

Zehapenaren zenbatekoa erabakitzeko aintzat hartuko dira hura jartzea eragin zuten ekintzetan eman diren gorabeherak, hala nola arau-haustearen izaera, zer kalte eragin den, zenbat aldiz egin den, nahitasun-maila, jarduketarekin lortutako kostu-aurrezkoa, bai eta aringarritzat edo larrigarritzat jo daitezkeen erantzulearen bestelako alderdiak ere.

**66. artikulua. Behin-behineko neurriak**

1. Indarrean dauden arauak aplikatuta, ematen den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren behin-behineko neurriak hartu ahalko dira, barne hartuta aldi baterako esku hartzea eta materialak kentzea.

2. Behin-behineko neurriek ez dute zehapen-izaerarik edukiko, aplikagarria den araudian aurreikusitakoak izango dira, eta, edozein kasutan ere, saihestu nahi den kaltearekiko proportzionalak izan beharko dira. Hona hemen adibide batzuk:

a) Kaltea ez luzatzeko zuzentze-, segurtasun- edo kontrol-neurri egokiak jarraraztea.

b) Aparatu, ekipo edo ibilgailuak zigilatzea.

c) Saltokia aldi baterako, zati batean edo osorik ixtea, edota obra geldiaraztea.

d) Jardueran aritzeko baimena edo obra gauzatzeko lizentzia aldi baterako etetea.

**Azken xedapen bakarra**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta hamabost egunenera sartuko da indarrean.